


## LA RUECA DE LA POESIA

En un tiempo anterior a la conquista de la Sierra de Aralar por San Miguel Arcángel, anterior a la quema y destrucción del Monte Sagrado por dicho elemento, se dice que había un hermoso pueblecito, llamado "Poblado de Poetas".

A todo hombre o mujer que quisiera residir en aquel poblado se le imponía como primera misión la de convertir en jardín un pequeño terreno lleno de zarzas y ortigas. Y, aunque parezca mentira, la mayoría de los candidatos a poeta fracasaban en esta prueba, pues, en su ansia de ser grandes poetas, o consideraban una bajeza esa actividad, o tenían las manos demasiado finas para extraer las ortigas, o incluso, en lo que se refiere a las zarzas, no se les antojaban nada poéticas.

A pesar de todo, había quienes conseguían sobrepasar la prueba. Así, con el tiempo, aquel poblado llegó a estar rodeado de hermosos jardines.

Como paso sucesivo, a aquellos que estaban llenos de esperanza por entrar en el reino de la poesía se les entregaba una vieja rueca y una porción de lana. Primeramente, deberían conseguir que aquella rueca girase con un eje perfecto, sin apenas hacer ruido. Acto seguido, tenían que obtener hilo a partir de la lana; con el hilo había que confeccionar una gran telaraña de variados colores.

Los que concluían el trabajo podían quedarse a vivir en el poblado de los poetas. Allí les instruían en diferentes materias, tales como las matemáticas o las ciencias de la naturaleza, así como en el aprendizaje memorístico de poemas populares tradicionales; también estudiaban algo de música. No se incluía la poesía culta, y menos la crítica poética, hasta que transcurrían muchos años. Durante ese período también desempeñaban la labor de copistas. Poesía, lo que se dice poesía, aquella que era digna de ser reproducida por los copistas, no se comenzaba a escribir casi hasta la ancianidad, y sólo por aquellos pocos que lograban hilar fino, ahora ya con la rueca de las palabras.

## POESIAREN GORUA

Aralarren altzoan, Mikel Doneak konkista zezan eta oro hauts biur zezan baino lehenagoko denboratan, ba omen zegoen herriska eder bat, zeini "Poeten herriska" deitzen omen zioten.

Han bizi nahi zezan emakume nahiz gizaseme bakoitzari jarri ohi zioten aurreneko eginkizuna sasiz eta asunez bateriko soro txiki bat lorategi bihurtzea izaten omen zen. Eta, gezurra badirudi ere, hemen erortzen ziren poetagai gehienak, poeta izateko irrikatzen zeuden haientzat bajeza izan ohi bait zen eginkizun hura, edo esku finegiak edukitzen bait zituzten asunak ateratzeko, edo sasia nahiz sastraka ez baita zitzaien batere poetikoa iruditzen.

Hala ere, lortzen zuten batzuk azkenean helburua. Honela, herriska hura, denboraren poderioz, lorategi ederrez inguratuta egotera iritsi zen.

Lantegi hori amaitu bezain azkar, eta erreinu berrian sartzeko itxaropen osoz zeuden haiei, gurpil oker bat eta artilea ematen omen zieten. Lehenik, gurpil hura xuxen xuxen eta ia soinurik gabe ibil zedin lortu behar zuten. Gero , artiletik haria sortu, hariaz amaraun haundi bat osatu, kolore desberdinak eman harizati bakoitzari eta, azkenik, hariak konbinatuz, oihal eder bat ehundu behar zuten.

Hori lortuz gero, poeten herrian gera zitezkeen bizitzen, eta han matematika irakasten zieten, poema zahar herritarrak ere bai; baita musika piska bat ere. Poesia kultua eta poesiari buruzko azterketa kritikoak egiten urte anitz pasa arte ez zitzaien irakasten. Gero, kopista lanak ematen zitzaizkien zenbait urtez. Poesia, poesia esaten dena, idazten eta kopistengana eramaten aski edadetu arte ez ziren hasten.

**Juan Cruz Igerabide**